



penagatik –sailkapen-saio guztiak zuzenean ematen aitzindari izan ziren–. Olazarrek eta har gidatutako “Kale Gorrian” saioak, berriz, duela bi urte jaso zuten aitortza. «Herri proiektu bat noraino irits daitekeen erakusten du», uste du Olazarrek. Zeharka hirugarren Argia saria ere badu Infozazpi; Arrosak ekoiztutako eta Nekane Zinkunegik gidatutako “Zebra Bidea” magazinak jaso baitzuen saria 2015ean.

LIZENTZIAK, EPAITEGIAN

2012an izan zen 30 urtean lehen aldiz lizentzia esleipenerako lehiaketa bat EAEn. Patxi Lopez-en Gobernuak egindako deialdi hartan lortu zituen FM frekuentziak Infozazpi beste elkarte batzuekin aurkeztutako proiektuak. EAJk boterea berreskuratzean, ordea, ezerezean utzi zuen lehiaketa. Auzitara jo zuten kaltetuek. Espainiako Auzitegi Gorenaren ebazpenaren zain dago afera uneotan. Itxaropentsu da Olazar, eta lizentziak izatea proiektu gisa «jauzi egiteko esanguratsua» izango delakoan da. Nafarroan, batez ere iparrean, lortuta dituzte lizentziak. Gune horietan albisteak «epe motzean» etorriko direla aipatu du. Ipar Euskal Herrian,

Eider Olazar, 2014an «Kale Gorrian» magazinagatik jasotako Argia saria eskuetan. Kazetari izateaz gain, Infozazpi irratia sustatzen duen Azti Begia elkartearen lehendakaria ere bada tolosarra.
Jon URBE | ARGAZKI PRESS

aldiz, hiru eskaera egin eta beste horrenbeste ezezko jaso dituzte.

Buruan herdoilik ez du Olazarrek. «Berrasmatu beharra dago», bota du erronka. «Gure baliabideak hedabide handien aldean murrizak» direla aitortu du, baina «gutxiagorekin kalitatezko eduki ezberdinduak sortzean» dakusa koska. Tertulien adibidea ekarri du, orojakile papereko tertulia formatutik ihes egiteko beharra. «Orojakile izatea ez da erreala eta gainera ahots asko isilarazten ditu, hein handi batean, emakumeenak», zehaztu du. Gogoeta horrekin agurtu dugu Olazar. Aurretik, irratia «etorkizun oparoa» iragarri dio. Urteurreneko leloak dioen bezala, “kontakzuek bada, entzuteko baitago” Infozazpi.

Zendu berri den Kontxu Odriozolari egin zion lehen elkarrizketa Agin Laburuk. EAJko Xabier Arzallusekin, berriz, lehendakari nor izan ardo botila apustu egin eta galdu egin zuen...

Berrasmatzeko premia ikusten du Eider Olazar lehendakariak, «gutxiagorekin kalitatezko eduki ezberdinduak sortzeko». Teknologia berrien olatua bete-betean hartu du Infozazpi

Zorionak, maitea!

Maidar Iantzi Goienetxe

Zorionak, maitea!», eta arrosa gorri bat opari. Eta handik ordu batzuetara, edo ordu batzuk lehenago... piii-piii-piii-piii... Lohitzune Zuriñerekin dago kafe baten bueltan, baina ez die lagunaren kontuei kasu handirik egiten. Mobiletik galdezka du bere mutila, Julen. «Non zauden? Norekin? Zertan ari zarete?». Dendan erosketak egiten ere *whatsapp* eta *whatsapp* artean betetzen du karroa, eta kaletik idazten doala ia jo du farola bat. «Agur mezua 00.00etan idatzi zenidan, baina 00.10ean konektatu zinen azkenekoz. Zeinekin egon zinen?»... ..

«Zorionak, laztana!», zuretzat da eraztuna. Eta handik ordu batzuetara, edo ordu batzuk lehenago, Mari Kruz ezbaian dago ispilu aitzinean: «Ongi gelditzen zait soinekoa, baina seguru Jose Luisi ez zaiola gustatuko esko-tea». Etxekoandrea da Mari Kruz eta bere lanorduak zenbatezinak izan arren, ez du soldatarik jasotzen. Horregatik, apuroa ematen dio beretzako diren gauzak eros-teak eta diru gehiegi gastatzeak. Senarra arduratzen da etxean diru kontuez.

Bihar San Valentin Eguna da. Agian ospatuko duzue, agian ez. Baina aitzakia bikaina izan daiteke maitasunaz hausnartzeko. Adibidez, amodiozko filmetan eta nobeletan aldiro istorio bera kontatzen dela ohar gaitezke: emakume baten ibilbidea gizon bat lortu arte. Gero ez dakigu nola bizitzen diren, justu harremana hasten denean bukatzen baita kontakizuna. Zergatik pentsatzen dugu maitasunean dena dela libre? Gizonek eta emakumeek desberdin maitatzen dugu?

Erich Frommek idatzi zuen bezala, maitatzea ikasi beharreko zerbait da, ezagutza eta ahalegina eskatzen dituen artea. «Ongi maitatzea artelan on bat bezalako da». •